## 2006an egindako irisgarritasun ebaluaketa.

| IZENA | | KALIFIKAZIOA | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| ZUMALAKARREGI MUSEOA<br>ORMAIZTEGI | P | MUGIMENA | IKUSMENA | ENTZUMENA | ADIMENA |

OHARRAK: Aparkaleku publikoa. Sarrera desnibelik gabea baina ate pisutsua. Barne-desplazamendu ona. Komuna ez egokitua eta zailtasunekin. Bisita gidatuak ahozko informazioarekin. **Irisgarritasun orokorra ERTAINA.**

| | |
|---|---|
| | **DESPLAZAMENDU HORIZONTALA: tokiaren barnekaldeari** dagokio.<br>BERDEA: gurpil- aulkientzat egokia. Ez dago trabarik ez eta maila-aldaketarik edo arrapala egokiak ditu.<br>LARANJA: ibiltzeko zailtasunak dituzten, makulu edo ibiltaria behar duten pertsonentzat egokia.<br>GORRIA: zailtasunak desplazamendurako. Maila aldaketak eta plano horizontalean oztopoak. |
| | **DESPLAZAMENDU BERTIKALA:**<br>BERDEA: legediak zehazten dituen azalerak betetzen dituzte igogailuek (gurpil- aulkiek 360ºko biraketa egin dezakete).<br>LARANJA: igogailuek, arauek zehazten duten azalera minimoa ez dute betetzen<br>GORRIA: ez du igogailurik eta beste pisuetarako desplazamendua eskaileren bidezkoa da. |

| | |
|---|---|
|  | **IKUSMEN- ORIENTAZIOA:**<br>BERDEA: leku eta ibilbideak adierazteko kartel eta ikonoak ditu. Ateen zenbakiak eta indikazioak kontrastea dute eta etengailu eta manipulatzeko elementuak nabariak dira. Markoen pintura eta maila aldaketak seinalizatuta daude beren lokalizazioa adieraziz. Ikusmen eta kognitibo maila baxua duten pertsonentzat egokia da.<br>LARANJA: aurreko baldintzetako batzuk betetzen ditu, baina ez guztiak. Zatika egokia.<br>GORRIA: ikusmen adierazgarririk ez du. |
|  | **ENTZUMEN- ORIENTAZIOA:**<br>BERDEA: ikusmen adierazgarriak edo argizko edo bibraziozko adierazgarri sentsorialak ditu kanpoko abisuen berri emateko (telefonoa, atea, alarmak…). Hotelaren, museoaren, baliabide turistikoaren, garraioaren, e.a.-en adierazpenak eta informazioak idatziz daude eta bezeroen eskura. Megafonia erabiltzen da. Bezero gorrentzat egokia.<br>LARANJA: aurreko baldintzetako batzuk betetzen ditu, baina ez guztiak. Entzumen gaitasun urria dutenentzat egokia.<br>GORRIA: aurreko balditzak ez ditu betetzen. |
|  | **UKIMEN ORIENTAZIOA:**<br>BERDEA: adierazgarri guztiak igogailuetan, ateetan eta informazioetan braille-n ere badaude eta egokiak dira.<br>LARANJA: igogailuek bakarrik dute informazioa braille-n.<br>GORRIA: ez dago informaziorik braille-n. |
|  | **KOMUNAK:**<br>BERDEA: legeak ezartzen dituen segurtasun eta irisgarritasun baldintza guztiak betetzen dituzte. Gurpil- aulkiak behar dituzten pertsonentzat egokiak.<br>LARANJA: aurreko baldintza batzuk betetzen dituzte. Ibiltaria erabiltzen duten pertsonentzat eta mugikortasun urria duten pertsonentzat egokiak.<br>GORRIA: iristeko zailak eta ez egokiak. |
|  | **LOGELAK:**<br>BERDEA: legeak ezartzen dituen irisgarritasun baldintza guztiak betetzen dituzte. Gurpil- aulkia behar duten pertsonentzat egokiak.<br>LARANJA: aurreko baldintza batzuk betetzen dituzte. Ibiltaria erabiltzen duten pertsonentzat eta mugikortasun urria duten pertsonentzat egokiak.<br>GORRIA: ezintasunak dituzten pertsonentzat ez dira irisgarriak. |
|  | **JANGELAK ETA GUZTIENTZAKO GUNEAK:**<br>BERDEA: irisgarriak dira, oztoporik gabe eta gurpil- aulkien zirkulaziorako leku zabalak dituzte. Irisgarriak diren baiñuetara sarrera zuzenak dituzte. |

| | |
|---|---|
| | LARANJA: aurreko baldintza batzuk betetzen dituzte, baina ez dira egokiak beren kasa doazten eta gurpil- aulkia behar duten pertsonentzat.<br>GORRIA: Ez dituzte aurreko baldintzak betetzen, irisgarritasun urria edo nulua. |
|  | **SARRERAK KANPOALDETIK:**<br>BERDEA: bai kaletik eta bai aparkalekutik guztiz irisgarria da, gurpil- aulkia behar duten eta beren kasa doazen pertsonentzat.<br>LARANJA: irisgarria da baina bigarren mailako edo osagarriak diren ate eta ibilbideen bidez.<br>GORRIA: pertsona baten edo gehiagoren laguntzarik gabe ez da irisgarria. |
|  | **ATEAK ETA PASABIDE LIBREAK:**<br>BERDEA: gela, igogailu eta lekuen ateek legeak eskatzen dituen gutxiengo neurriak betetzen dituzte. Korridore eta barruko ibilbideak, bai zabalerak eta bai ibilbideak, gurpil-aulkien zirkulaziorako egokiak dira.<br>LARANJA: aurreko baldintza batzuk betetzen dituzte, baina ez dira egokiak beren kasa doazten eta gurpil- aulkia behar duten pertsonentzat.<br>GORRIA: ez dituzte aurreko baldintzak betetzen. |
|  | **ILUMINAZIOA:**<br>BERDEA: gelen, korridoreen, eskaileren eta leku amankomunen argiztapena egokia da. Gauez, ibilbide guztiak erabat mugatuta daude. Ez dago eremu ospelik.<br>LARANJA: gaueko argiztapena ez da egokia. Eremu batzuk gutxi argiztatuta daude.<br>GORRIA: orokorrean, iluna da eta argiaren intentsitatea baxua da. Argi natural gutxi dago. |
|  | **KANPOALDEKO ORIENTAZIOA:**<br>BERDEA: kanpotik lekua identifikatuta dago eta erraz antzematen da. Inguruarekiko desberdintzen da eta erraza da distantzia jakin batetik antzematea.<br>LARANJA: lekua antzemateko nolabaiteko zailtasuna. Gerturatzea beharrezkoa da antzemateko.<br>GORRIA: inguruarekiko ia ez da desberdintzen. Antzematea eta aurkitzea zaila da. |
|  | **ALTZARI ETA MAHAI-TRESNERIA:**<br>BERDEA: mahaia eta aulkiak gurpil- aulkiak behar dituzten edo mugikortasun urria duten pertsonentzat egokiak dira. Heltzeko ezintasuna edo dardara duten pertsonentzat egokiak diren mahai tresnak ditu.<br>LARANJA: aurreko baldintzetako batzuk betetzen ditu.<br>GORRIA: ez du aurreko baldintzarik betetzen. |

| | |
|---|---|
|  | **IKUSMENARI EGOKITUTAKO KARTA:**<br>BERDEA: jatetxeko kartaren ikusmen- diseinua (tamaina, letra moeta, kontrastea, eta testuen antolaketa), ikusmen- ezintasunak dituzten pertsonentzat egokia da.<br>LARANJA: aurreko baldintzetako batzuk betetzen ditu.<br>GORRIA: ez du aurreko baldintzarik betetzen. |
|  | **UKIMEN- KARTA:**<br>BERDEA: jatetxeko karta braille-n dago.<br>LARANJA: zerbitzariek karta irakurtzen diete bezeroei.<br>GORRIA: self – service. |

| | |
|---|---|
|   | **MENU EGOKITUA:**<br>BERDEA: elikatze berezia behar duten pertsonentzat diseinaturiko menuak daude kartan ( diabete-a, hipertentsio-a, zeliakoak, irensteko zailtasunak, obesitatea…).<br>LARANJA: kartan, bezeroak hala eskatuz gero, menu bereziak egin daitezkela adierazten da.<br>GORRIA: aurreko indikaziorik ez da azaltzen. |
|   | **HARRERA- LEKUA:**<br>BERDEA: harrera- lekua, bere diseinuari esker, edozein egoeratan dauden pertsonentzat edo neurri desberdineko pertsonentzat egokia da (gurpil- aulkiak behar dituzten pertsonentzat adibidez).<br>LARANJA: gurpil- aulki bat behar duen eta bere kasa doan pertsona batek zailtasunak ditu harrera- lekura iristeko.<br>GORRIA: gurpil- aulki bat behar duen eta bere kasa doan pertsona batek ezin du harrera- lekura iritsi. |
|  | **INFORMAZIOA:**<br>BERDEA: ikusmen, entzumen, ukimen eta pertsonalak diren informazio sistemak ditu.<br>LARANJA: aurreko baldintzetako batzuk betetzen ditu.<br>GORRIA: ez du informazio sistemarik. |
|  | **WEB ORRI BIDEZKO INFORMAZIOA:**<br>BERDEA: web orriak WAI protokoloa betetzen du eta harremanetan jartzeko orria irisgarria da.<br>LARANJA: web orria ez da irisgarria harremanetan jartzeko.<br>GORRIA: ez du web orririk, ez informaziorako eta ez harremanetarako. |
|  | **LEIHATILA:**<br>BERDEA: gurpil- aulkia behar duen eta bere kasa doan pertsona batentzat egokia da. Leihatila edozein motatako pertsona bati harrera egiteko diseinatuta dago. |

| | |
|---|---|
| | diseinatuta dago.<br>LARANJA: aurreko baldintzetako batzuk betetzen ditu.<br>GORRIA: leihatila ez da irisgarria gurpil-aulkia behar duen pertsona batentzat. |
|  | **ITSUENTZAT INFORMAZIOA:**<br>BERDEA: entzumen informazio sistemak ditu, haririk gabeko entzungailuak edo/eta gida pertsonalak.<br>LARANJA: gida pertsonalak izateko aukera eskaintzen du.<br>GORRIA: ez du aurreko baldintzarik betetzen. |